



## **AGIRIA**

2007ko Irailean Vilnius, Lituania, Young Democrats for Europe-n (YDE) batzar eratzaileren mandatuari jarraituz YDEko batzordea asteburu honetan Bilbon bildu da. Batzar hau YDEko kideek elkarbanatzen dituzten balore amankomunetan sakontzeko eta etorkizunerako helburu eta eginkizunak zehazteko aukera izan da.

Batzordeko kideek beraien gazte erakundeak batzen dituzten balore nagusietan oinarritu dira, hala nola:

- Politikaren kontzepzio berri baten beharra, Europar biztanleriaren behar eta nahietan oinarritua.
- Alderdi politikoen independentziari errespetua eta alor politikoan berauen partehartze egokiaren beharra.
- Europar zehar gazte demokraten ahotsa koordinatua eta behar den bezala komunikatua izateak duen garrantzia bermatzea.

YDEko batzordeak, 2009ko Europar hauteskundeak direla eta, 2008an uda estola bat antolatzea erabaki du kideen etorkizuneko lana koordinatzeko. Eskolaren funtsa hauteskundeetan garrantzizkoak izando diren grietan adostasuna lortzea izando da.

Aipatutako helburua lortzeko lan taldeak osatuko dira gai konkretu batzuen, adibidez, klima aldaketa, Europaren zabaltzea, gai sozialak etabarren gainean kooperazio zehatza eta emankorra bermatu dadin.



**YDE's Council - Bilbao**

**18 – 20 April 2008**

YDEren komunikazioa errazteko batzordeak YDEren web orria eratzea adostu du.

Cesta Zmeny-ko (txekiar errepublika) gazte ordezkariak osoko kide gisa ongiatorria ematea ere erabaki da.

YDEko Batzordeko kideek, apirilaren 19an Vilnius Lituaniako alderdi laboristak, beraien baloreen isla diren, demokrazia, giza eskubideak eta zuzenbide estatua aintzat hartzeko deituriko manifestaldia babesten du.

YDEk aste honetan Bilbon eta Elgoibarren gertaturiko atentatuen aurrean, bere adiskidetasuna erakusten dio euskal biztanleriari, helburu politikoak lortzeko biolentziaren erabilera gaitzesten duelarik, eta era berean alderdi politiko guztien arteko elkarrizketa aktibua baten aldeko apostua egiten du.

Bukatzeko, pasa den otsailean Txipren ospaturiko hauteskunde presidentzialak direla medio, YDEko batzordeak Txipreren batasuna helburu duten ekimen berriekiko bere babesa erakusten du, europar zein nazioarteko zuzenbidea errespetatuz ebazpen egokia bilatzeko nahia bultzatuz.